



BATZAR NAGUSIAK
JUNTAS GENERALES
BIZKAIA

PRENTSA OHARRA
2016/03/14

Errekaldeko saihsbideak "3,75 milioi euroko" gastua izango dau obrak hasi aurretik

Imanol Pradales Ekonomiaren eta Lurraldearen Garapenerako foru diputatua Bizkaiko Batzar Nagusietan egon da gaur goizean, PP taldeak eskatuta, Errekaldeko saihsbidearen proiektuaren idazketea zein egoeratan dagoan azaltzeko. Saihsbidea "Ingurumeneko Aurretiazko Bideragarritasun" fasean dago. Sailak "kontsulten lehenengo dokumentua" egin dau daborduko, eta "orain hilebete" bialdu zan Ingurumeneko eta Iraunkortasuneko Foru Sailera, azpiegitura horretarako beharrezkoa dan ingurumeneko "Erreferentziazko Dokumentua" deritxona eskuratzeko.

Aurretiazko fase hori amaitzeko "aurreikusten dan" epea "hamar hilebete ingurukoa" izango da. Dokumentu horrek "helburu bikotxa" dauka. Alde batetik, horren eragina jasoko daben administrazioei eta interesa dauen jendeari kontsultau ostean, "etorriko dan urigintzako bideragarritasuneko fasean aurrera eroan beharko dan etorkizuneko ingurumeneko azterlan estrategikoaren xehetasun eta zehaztasun mailea" ezarteko aukerea emongo dau, diputatu jaunak adierazo dauenez. Eta, bestetik, egon daitekezan trazauaren alternatiba posibleak definidu ostean, txostena lagungarria izango da trazauaren alternatiba posible horreek "baloretako", beste batzuen artean "eragin funtzionalak, sozialak, ingurumenekoak, urigintzakoak eta hidraulikoak" kontuan izango dituan "erespide anitzeko" metodologia erabilia.

Une honetan, Aldundiak, Errekaldeko saihsbidearen "bideratu bako" trazauaren alternatiba bat dau. Pradalesek azpimarratu dauenez, beharrezkoa izango da obrak hasi aurretik ingurumeneko "Erreferentziazko Dokumentu" hori lortzea, horren ostean urigintzako bideragarritasuna egiteko, Bideko Plan Bereziaren eta egin beharreko Ingurumen Eragineko behin betiko txostenaren bitartez. Ganera, obren bideragarritasuna be egin beharko da, trazauaren eta eraikuntzaren proiektuei on ikusia emonda.

Aldundiko arduradunak azaldu dauenez, saihsbidea, gaur egun Errekalden dagoan bidezubiaren hegoaldeko alternatibea izango da, A-8 autopistea San Mamesen lur azpian dagoan zatiaren bukaeratik hasi eta Juan de Garaiko lotuneraino. Helburua, tunelak eta bidezubiak erabilia, Errekaldeko auzoa berreskuratzea ahal izatea da, une honetan dagozan bidezubiak kendu ostean. Pradalesek adierazo dauenez, Sabino Aranako "scalextric-agaz" gertatu zan moduan, Errekaldeko kasuan be "beharrezkoa" izango da lehenengo saihsbidea egitea, gero izen bereko bidezubiak kendu ahal izateko.

Pradalesek Batzarretako taldeei jakinarazo deusenez, "saltau ezin doguzan legezko epeak dituan" administrazio prozedura horrek "3,75 milioi euroko" gastua eragingo deutso Aldundiari. Epeen ganean galdetuta, Pradalesek ez dau gehiago zehaztu gura izan, prozesuak beste administrazio batzuen on ikusia be behar dauelako.

Diputatuak adierazo dauenez, egingo dan saihsbidea eregiteko izapideak, maiatzaren 27an, Aldundiari proiektuaren idazketeagaz hasteko agindua emoten eutson arauz besteko proposamena onartu "baino askoz lehenago" hasi ziran. San Mamesetik Bilbora sartzeko bide barriak eregitea "beharrezko" pausua zan Errekaldeko Saihsbidea eregi ahal izateko. Bere



BATZAR NAGUSIAK
JUNTAS GENERALES
BIZKAI A

berbetan, sarbide horreek barik “ezinezkoa” izango zan saihesbideari ekitea, saihesbide hori eta une honetan eraitsita dagozan Sabino Aranako sarbideak “bateraezinak” ziralako.

Ganera, Pradalesek gogoratu dau Hegoaldeko Saihesbide Metropolitarraren eraikuntzari esker, A-8ko zati horretan trafiko astunaren trafikoa debekau ahal izan dala, eta horrek “hobekuntza” nabarmena eragin dauela autobidetik gertuen dagozan uriguneetan, Errekalden, adibidez.

"Eperik eta finantziatorik ez badago, kea baino ez dogu saltzen", erantzun deutso Zigor Isuskiza EH Bilduko ordezkariak, eta "Supersur" deritxona Errekaldeko saihesbide moduan erabilteko bere taldeak proposau eban eta Bizkaiko Batzar Nagusiek atzera bota eben idea gogoratu dau. Beste gauza bat be gogoratu dau, Bilboko Udalak Iparlateko lurretan gastau dituan "12 milioi euroak", obra egiten ez bada "ezertarako balioko ez dauen dirua".

EKIALDEKO SAIHESBIDEA

EH Bilduk egindako erantzun-eskeari erantzunez, diputatuak Bilboko Ekialdeko saihesbidea ze egoeratan dagoan be azaldu dau. Pradalesen berbetan Errekaldeko saihesbidea “baino aurreratuago” dagoan azpiegitura horren administrazino prozesua aurrera doa ingurumeneko bideragarritasuneko fasean, lurraren kalidadearen ganeko adierazpena lortzeko Bideko Plan Bereziaren “eguneratzean”, hain zuzen be. Aldundiko arduradunak esan dauenez, Eusko Jaurlaritzaren behin betiko txostenak “urtarrilaren 21ean” eta “zezeilaren 8an” heldu ziran, eta bideko plana “daborduko behin betiko onespenerako prest dago”.

EZEZKOA ERREKALDEKO BIDE-ZUBIAK “KONPONTZEARI”

Beste alde batetik, Ekonomiaren eta Lurraldearen Garapenerako batzordeak ez dau onartu EH Bilduk aurkeztu dauen arauz besteko proposamena, Errekalde auzoaren gainetik pasetan diran A-8ko bide-zubien arteko estaldurak “konpondu” daitezkan, bertan sortzen diran eta Bilboko auzo horretan dagoan umeentzako eta kirola egiteko gunearan ganera jausten diran “itoginak” saihesteko. Ekimenak Podemos Bizkaiaren aldeko botoa, PP taldearen abstentzinoa eta EAJ-PNV eta PSE-EE taldeen kontrako botoak jaso ditu.

Joaquín Colmenero PSE-EEko batzordekideak adierazo dauenez, Aldundiak daborduko “hobekuntzak” egin ditu bide-zubietan, “drainatze sisteman, euskarrietan eta bertan dagozan txapen junturetan”, hain zuzen be, eta, horrez gain “margotze eta ezotasunaren kontrako tratamendu” lanak be egin ditu. Batzordekide sozialistaren berbetan, Foru Aldundiak eten barik egiten ditu mantentze-lanak zubi horreetan. Halanda be, “ezelango irazterik ez egotea lortzea oso gaitza dala” onartu dau. Bere eretxiz, “errore” bat hartzen da oinarri moduan, hau da, bide-zubiak “estalki irazgatx” moduan ulertzea. Hori dala eta, eskaria egin deutso Bilboko Udalarri, umeek jolasteko gunea estaltzeko aukerea aztertu daian, “Bilboko beste leku batzuetan egin dauen moduan”. Soluzino berbera planteau dau PP taldeak be.

Gai berari buruz berba eginez, Irene Edesa EAJ-PNVko ordezkariak, egitura horrek “ez dauela konponketarik behar” esan dau, eta hiriko Udalarri eskaria egin deutso “inguru hori irazgatx egiteko proiektua” aurkeztu daian. Bere eretxiz, Aldundiak egiten ditu azpiegiturak behar dituan mantentze-lanak eta, bere egunean “txapazko panel seguruagoak” instalau ebazan bide-zubien



BATZAR NAGUSIAK
JUNTAS GENERALES
BIZKAI A

artean, eta baita “drainatze sistema” be, auzoa “altuera eta distantzia desbardinetan” zeharkatzen daben bide-zubi “desbardin” bik osatutako bideko egituran.

EH Bilduk eta Podemos Bizkaiak, Aldundiak “gauzak” egin dituala onartu arren, “holan ez dirala itoginak konponduko” salatu dabe. “Ez dogu ezer konpontzen Udalari estalgi bat instalau daiala eskatuta, eta ez dot uste estalgi horrek arazoa konponduko leukenik”, esan dau Zigor Isuskizak. Bere esanetan, itogin horreek sortzen dituen pozuek eta eragozpenek “eragina dabe bertako biztanleen bizitza kalidadean”. Podemoseko Nuria Atienzaren eretxiz, falta dana, jatorriz “arazo larria” dana konpontzeko “borondate politikoa” da, eta hori ez da “bateraezina” umeentzako gunearen ganean egin daitekean estalgi posible bategaz.



BATZAR NAGUSIAK
JUNTAS GENERALES
BIZKAIA

PRENTSA OHARRA
14/03/2016

La variante de Rekalde absorberá "3,75 millones de euros" en su tramitación

El diputado foral de Desarrollo Económico y Territorial, Imanol Pradales, ha comparecido esta mañana, a petición del PP, en las Juntas Generales de Bizkaia, para informar del momento en el que se encuentra el proyecto de la Variante de Rekalde, en fase de "Viabilización Previa Ambiental", según el responsable foral. El departamento ha elaborado ya un "primer documento de consultas" que fue remitido hace "un mes" al área foral de Sostenibilidad y Medio Natural para la obtención del denominado "Documento de Referencia" ambiental, trámite inicial para continuar con la tramitación de dicha infraestructura.

El plazo "estimado" para finalizar esta fase previa será de "unos diez meses". Dicho documento tiene un "doble objetivo". Por un lado, previa consulta a las administraciones afectadas y público interesado, permitirá determinar el "nivel de detalle y el grado de especificación del futuro estudio ambiental estratégico que deberá desarrollarse en la posterior fase de viabilización urbanísticas", ha detallado Pradales. Y, por otro, tras definir las posibles alternativas de trazado, el informe contribuirá a "valorar" estas alternativas en función de una metodología "multicriterio" en donde se tengan en cuenta las afecciones "funcionales, sociales, ambientales urbanísticas e hidráulicas", entre otras cuestiones.

Actualmente, la Diputación dispone de una alternativa de trazado "sin viabilizar" de la variante de Rekalde. Antes de comenzar las obras, Pradales ha insistido en que se debe obtener primero este "documento de referencia" ambiental, para después realizar una viabilización urbanística mediante un Plan Especial Viario y el correspondiente informe definitivo de Impacto Ambiental, así como una viabilización de las obras con el correspondiente visto bueno a los proyectos de trazado y de construcción.

Según ha explicado el responsable foral, la variante es una alternativa por el sur al actual viaducto de Rekalde, entre lo que sería el final del soterramiento de la A-8 en San Mames y el enlace de Juan de Garay. Su objetivo es, mediante una sucesión de túneles y viaductos, "posibilitar" la recuperación del barrio de Rekalde, mediante la eliminación de los viaductos existentes. Pradales ha señalado que, como ya sucediera con el "escalextric" de Sabino Arana, en el caso de Rekalde también será "necesario" construir primero la variante, para eliminar después los viaductos del mismo nombre.

Pradales ha comunicado a los grupos junteros que todo este procedimiento administrativo, "que tiene unos plazos legales que no nos podemos saltar", acarreará un gasto a la Diputación de "3,75 millones de euros". Preguntado por los plazos, Pradales no ha querido dar más detalles debido a que el proceso debe obtener el beneplácito de otras administraciones.

El diputado ha señalado que los trámites para la construcción de la futura variante se iniciaron "mucho antes" de aprobarse el 27 de mayo de 2014 una proposición no de norma que instaba a la Diputación a comenzar la redacción del proyecto. La construcción de los nuevos accesos a Bilbao por San Mames era un paso "indispensable" para la posible construcción de la Variante



BATZAR NAGUSIAK
JUNTAS GENERALES
BIZKAIA

de Rekalde. Sin estos accesos, habría sido "imposible", según él, abordar la variante ya que era "incompatible" con los derruidos accesos de Sabino Arana.

Además, Pradales ha recordado que la construcción de la Variante Sur Metropolitana ha permitido prohibir el tráfico pesado por este tramo de la A-8, lo que ha supuesto "una gran mejoría" para las zonas urbanas más próximas a la autovía como es el caso de Rekalde.

"Si no hay plazos, ni financiación, no vendemos más que humo", le ha espetado el representante de EH Bildu, Zigor Isuskiza, quien ha recordado la idea de su grupo, rechazada por la Cámara vizcaína, de utilizar la "Supersur" como vial alternativo, así como los "12 millones de euros" gastados por el ayuntamiento de Bilbao en los terrenos de Iparlat, "dinero dilapidado si no se hace".

VARIANTE ESTE

Asimismo, el diputado ha explicado también, en respuesta a una pregunta de EH Bildu, el momento en el que se encuentra la variante Este de Bilbao. El proceso administrativo de esta infraestructura, "más avanzada" que la variante de Rekalde –según Pradales–, camina en la fase de viabilización ambiental, concretamente, en la "actualización" del Plan Especial Viario para obtener una declaración de calidad del suelo. El responsable foral ha señalado que los informes definitivos del Gobierno vasco llegaron el "21 de enero" y el "8 de febrero" de 2016 y que el plan viario "está preparado ya para su aprobación definitiva".

RECHAZO A "REPARAR" LOS VIADUCTOS DE REKALDE

Por otro lado, la comisión de Desarrollo Económico y Territorial ha desestimado una proposición no de norma presentada por EH Bildu para "reparar" las cubiertas existentes entre los viaductos de la A-8 a su paso por el barrio de Rekalde, con el objetivo de "evitar las goteras" que afectan a una zona infantil y deportiva del barrio bilbaíno. La iniciativa ha contado con el apoyo de Podemos Bizkaia, la abstención del PP, y el rechazo de PNV y PSE-EE.

Joaquín Colmenero, apoderado del PSE-EE, ha señalado que la Diputación ha acometido ya "mejoras" en los viaductos, en concreto, "en el sistema de drenaje, en el apoyo y en las juntas" de las chapas existentes, además de relizar labores de "pintado y de tratamiento antihumedad". Según el juntero socialista, la Institución foral viene realizando además trabajos de mantenimiento en dichos puentes. Pese a todo ello, ha reconocido que conseguir que no exista "ninguna filtración es muy difícil de solucionar". Para él, se parte de un "error" y es considerar los viaductos "como una cubierta impermeable". Por ello, ha pedido al ayuntamiento de Bilbao que "igual" debería pensar en cubrir la zona de juegos con una cubierta "como se ha hecho en otras zonas de Bilbao", solución planteada también desde las filas del PP.

De la misma partida, la representante del PNV, Irene Edesa, ha señalado que la estructura "no precisa de reparaciones" y ha invitado al consistorio de la villa a presentar "un proyecto de impermeabilización para la zona". Cree que la Diputación ya realiza las labores de mantenimiento que precisa la infraestructura y ha añadido que, en su día, la Diputación instaló "paneles de chapa más seguros" entre los viaductos y un "sistema de drenaje", en una estructura



BATZAR NAGUSIAK
JUNTAS GENERALES
BIZKAIA

viaria compuesta por dos viaductos "distintos" que recorren el barrio "a diferentes alturas y distancias".

Por su parte, pese a reconocer que la Diputación ha hecho "cosas", tanto EH Bildu como Podemos Bizkaia han denunciado que "así no se van a solucionar las goteras". "No solucionamos nada pidiendo al ayuntamiento un proyecto para instalar una cubierta, que no creo que arregle el problema", ha señalado Zigor Isuskiza, para quien los charcos y las molestias que generan estas goteras "repercuten en la calidad de vida de los vecinos". Para Nuria Atienza, de Podemos, lo que no hay es "voluntad política" para resolver un "gran problema" de origen, que no debe ser "incompatible" con una posible cubierta sobre la zona infantil.